


BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
634. zkia.
XV. urtea
2007ko azaroaren 16a


Ermuaran Bide "ONU"

# Auzo sentimendua

[ GAZTAROA ] GANIX GRAFITIGILEA • [ KIROLA ] BEHOBIA-DONOSTIAKO EMAITZAK


Mantentzea doan 3 urtean Chevrolet sorta osoan. Abendu arte bakarrik! Pasa mezua.!
Chevrolet bat nahi baduzu, orain errazagoa da GIAUTOri esker. Pasa mezua!
CHEVROLET
Promozio honen balioa, 07-12-31 baino lehenago matrikulatutako Chevrolet automobil guztientzako da.
Giauto
EIBAR
Otaola, 27
Tlf: 943 202 500
clientes@giauto.es
OLABERRIA
Karobi Ind. z/g
Tlf: 943 885 150
www.giauto.es


www.fresko-freskue.com
EZAGUTU ZURE
ALDERIK FRESKOENA
[eros ezazu zure Udal Merkatuan]
100€-ko 50 opariren
zozketan parte hartzeko
www.fresko-freskue.com
udal merkatuak
mercados municipales
aurrera doan herria





# ZOZOAK BELEARI...

**UXUE ALBERDI**

Zer moduz daramazu zure gizontasuna, Txino?

Emakumeoi, niri behintzat bai, askotan gertatu zaigu gure emetasunaz gogoeta egitea. Duela bi aste, esaterako, “emakumea eta sorkuntza” hitzaldia eman nuen Iruñean. Maiz entzuten dira “emakumea eta literatura”, “emakumea eta lan-mundua” eta halako kontzeptuak gure inguruan. Baina ezin pentsatuzkoa da Atxaga “gizontasuna eta literatura” hitzaldia ematen. Hark literaturari buruz hitz egingo du, huts-hutsean. Andoni Egañak ere bertsolaritzari buruz hitz egingo du: Maialeni tokatuko zaio bere sexua bere jardunarekin uztartzean sortzen diren tira-birak aztertzea. Askotan, gizarteko hainbat egoeratan, gizonak ZER baitzarete, eta emakumeak NOR. Baina zuek ere bazarete nor! Eta gu ere bagara zer...

Emakundek gizontasunari buruz gogoeta egiteko jardunaldiak antolatu ditu. Zer da gizon izatea? Zer da gizontasuna? Eta gizonkeria? Zer nolako heziketa jasotzen du gizonak? Nolakoa da haren sozializazioa? Zer espero da gizon portaeratik eguneroko egoeretan? Berdina al da gizonari gizon izateko gaur egun eskatzen zaiona eta duela belaunaldi bat edo bi eskatzen zitzaiona? Zer aldatu da?

“Gizon portatu hadi”. Ez da gure baserrietan gutxitan entzundako esaldia. Zer dago horren atzean?

Ez delako XX edo XY jaio eta kitto. Munduak daude munduen atzean.

> **«Zer da gizon izatea? Zer da gizontasuna?»**
> UXUE

> **«Gizon hitzak badu karga negatiborik niretzat»**
> IMANOL

**IMANOL LARRAÑAGA**

Ez daukat gizontasunari lotutako markak erakusteko aparteko irrikarik, Uxue. Gizon hitzak, gainera, badu karga negatiborik niretzat. Txikitan, adibidez, amaren baserrira joaten ginenean, gizonen etxea zegoen pixka bat aurrerago. Aldamenetik pasatzean, “hor, gizonen etxia! esaten zigun beti amak. Hesituta zegoen, garitaz eta alanbrez inguratuta. Adreilu gorriz eta Land Rover berdez jantzitako etxe hari ez nion traza onik hartzen.

Gaztetxotan, berriz, mutilok soldaduskan gizontzen ginela entzuten nuen behin eta berriz. Ez zidan ilusio handirik egiten horrela gizontzeak; eta soldaduskara joateko ordua ailegatu zitzaidanean, gizon izateko beste moduren bat egon behar zuela erabaki nuen. Harrezkero, liburuxka bat idatzi dut, baina ez dut zuhaitzik landatu; eta, momentuz, umerik ere ez dut egin. Bularrean ilea izan arren, ez dut sekula inor jo (bueno, umetan izaten nituen anaiarekin borroka txiki batzuk); ez dut sekula puenting egiteko potrorik izan, eta erraz emozionatzen naiz.

Bai, bertsolaritzak ere gizonezkoen prakak janzten ditu oraindik. 18 lagun zaudete Ilunbeko zezen-plazako ate handitik sartzeko zain, baina hiru baino ez zarete neskak. Gauza izango al zarete G-puntua mutilak baino lehenago topatzeko? Uxu, baliteke zorioneko puntua uste duguna baino gorago egotea: txapelaren azpian, akaso?

> «GIZONAK, GIZON IZATEKO,
> GARUNAK ETA PRAKAK EUREN TOKIETAN»

Esaera zaharra

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Behobia-Donostia

Urteroko zita. Asmoa egunerokotasunetik irten eta Bidasoa errekatik barrena Jaizkibel mendiaren albotik Donostiako alde zaharrera iristea. Urteroko pentsamendua, aurten azkena izango dok!

Batzuk ohartuko zineten aurten ez zeudela denak irteeran. Akats bat medio ezin izan dugu inskripzioa garaiz egin, baina halere gure pentsamenduan egon zarete. Norbera bere denborak hobetzen saiatzen den bitartean, gu ahalik eta denbora gehien egiten saiatzen gara burdin artetik kanpoan ahal den denbora gehiena egon zaitezten.

Besterik gabe besarkada handi bat eta animo pila bat (lasterketan parte hartu duen horri ere!), aurten bai azken Behobia-Donostia izatea espero, datorren urtean denok batera ospatuko dugu alde zaharrean.

**A.I.**

## Lagun bati

To, bostekoa! Aspalditxoan eskutitzez urri, ezta? Badakizu erritmo latza daramagu! Hala ere, uste dut merezi duela oraingoan tartetxo bat hartzea biok egoteko, kafetxo bat hartzen egongo bagina bezala. Gustura hartuko nuke, benetan! Gustura! Hamar urte joan zaizkigu hori egin ahal izan gabe. Hamar urte luze, non egon gabe denongan egon zaren. Hamar urte non gogorarazi diguzun zein garrantzitsuak diren eguneroko txikikeriak eta gora beherak. Zuk, zoritxarrez, disfrutatu ezin izan dituzunak. Hamar urte non udazkenak bereziak izan diren. Eta ez hamar urte antzu, ez! Emankorrak. Baita zure eremuetan ere. Zuk landatutakoak uzta asko eta asko eman baititu. Eta ziur egon ematen jarraituko dutela. Horretarako gaudelako gu hemen, ureztatzeko, zaintzeko eta berriz ereiteko.

Muxu bat eta badakizu, gorde tokitxo bat kafetxo hori hartzen dugunerako.

**I.A.**

## No fiutxur! Zuekin etorkizunik ez!

Jarduera ekonomikoa ekimen pribatuaren esku uzten ari dira (Volskwagen...) eta horrek desindustrializazioari zein deslokalizazioari bide irekitzen dio. Gainera pentsaezina da makro proiektuak jendartearen zerbitzura jarriko dituztela, proiektu zapaltzailearen biziraupenari begira diseinatuta baitaude.

Politika neoliberala esplotazioari mugarik txikiena jar diezaiokeen legedia oro deuseztatzen dabil. Behin behinekotasuna eta azpikontratazioa ditugu eguneroko ogi eta hori gutxi balitz kutxen edo banketxeen fenomenoa ere pairatzen dugu. Azken finean, gure etorkizun ekonomikoaren jabe bihurtu dira mailegu eta hipoteken bitartez. 100 eurogatik 170 euro ordaintzera behartzen gaituzte, aberatsa aberastuz eta txiroa txirotuz.

Klase desberdintzea gero eta nabarmenagoa da. Nahiz eta begien bistara desagerrarazi. Balore zapaltzaileek eskubideen ukapena ekartzen duen eskubideen kudeaketa bermatzen dute. Adibide garbiena etxebizitza duin bat edukitzeko eskubidea ukaturik dugu, eta aldi berean, eskubideen kudeaketa honek balore zapaltzaileak bultzatu eta elikatu egiten ditu, gainera balore zapaltzaile hauek "normaltzat" jo ditzagun estatuak bere makinaria propioa du: eliza, komunikabideak eta inposatu dizkiguten hezkuntza sistemak, besteak beste.

Euskal Herria zein bertako langile eta herri sektoreen zapalkuntza eta esplotazioa etekin zein kapital metaketaren sinonimo dira Espainia eta Frantziarentzat, eta baita Euskal Herriko oligarkiarentzat. Horregatik inposatu digute kapitalismoa eta horregatik jarraitzen dugu euren menpean. Baina nahikoa dela ozen esatera goaz! Zuekin, gaur egungo agintariekin, ez daukagu etorkizunik!

Eta horren aurrean gazteok badugu alternatiba, Euskal Herri independiente eta sozialista eraikitzera goaz, balore askatzaileak barnebilduko dituena, gure nazio izaera zapaldurik ez dagoen herria, espekulaziorik gabea eta gure eskubideak bermatuko dituena. Azken finean zuei; enpresari, burges, banketxe eta inmobiliariei. PNV, PSOE, UMP... amaitu zaizue txoiloa! Euskal Herria eraldatzera goaz! Sozialismoaren bidean Euskal Herria eraiki, Euskal Herria eraldatu.

**ELGOIBARKO GAZTE INDEPENDENTISTAK**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]

barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:
ELGOIBARKO IZARRA

**ZUZENDARIA:** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Asier Orbea, Oier Narbaiza, Andoni Iturbe **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Arnaiz **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Jon Eugi, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Ibai Portu, Oihana Tarragual, Unai Villena **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.650 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

## KEXAK

• Motorzaleek mendiak izorratzen dituzte: "Gero eta jende gehiago ibiltzen da mendian motorrean eta ingurune guztia izorratzen dute. Hiru Iturri inguruan demaseko zuloak daude lurrean, dena motorrekin eginda. Ez dago eskubiderik, natura errespetatu egin behar da."

• Udaltzainek isunak gazteleraz jartzen dituzte: "Goizean jaiki eta autora iristean isuna jarri dizutela ikustea ez da ederra, baina askoz gogorragoa da isun hori gazteleraz dagoela ikustea. Herria euskalduntzea nahi badugu, denok egin behar dugu lana."



• Basarte inguruan autoen ispiluak askatzen dituzte: "Azken egunotan, goizero-goizero aurkitzen ditut nire autoko ispiluak solte. Basarte inguruan aparkatzen dut eta, antza denez, norbaitek denborapasa berria dauka. Denboraz larri joaten naiz autora, lanera joateko denbora justuarekin, eta ez dut izaten astirik ispilua lotzeko. Errepidean nindoala askatu eta zintzilik geratu zen ispilua behin. Zorionez ez zen guztiz askatu, eta ez zen istripu larririk gertatu. Udaltzainei Basarte ingurua apur bat zaintzeko eskatuko nieke."



• Komun publikoak behar dira herrian: "Arratsaldero ume txikiekin irtetzen gara kalera; Madalako parkera edo Leku Ederrera joateko ohitura daukagu eta umeek komunera joateko beharra izaten dutenean arazoak izaten ditugu. Lehen bazeuden komun publikoak eta berriro irekitzea gustatuko litzaiguke. Merkatu Plaza azpian dauden komunak oso egoera txarrean egoten dira, zikinak eta usain txarrak atzeraka botatzen gaitu. Gaur egun herri askotan jarri dituzte bakarrik garbitzen diren komunak. Horietako batzuk jartzea ondo legoke. Mila esker ."

## TXALOAK

• Txalo bero bat berrogei urtekoen bazkaria antolatu zutenei: "Azaroaren 10ean egin genuen bazkaria berrogei urteko elgoibartarrek eta primeran pasatu genuen. Txalo zaparrada handi bat eskaini nahi niegu antolatzaileei, dena oso ondo atera zen-eta!".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

Elgoibarko Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT



# URRUZUNOREN *luma*

## *Sustraiak*

Betidanik atsegin izan ditut sustraiak. Elikatu dezakete, eutsi dezakete, sinbiosiak eratu ditzakete, beste bizidunak zurrupatu ditzakete. Sustraiak: oinarriak, ikusten ez diren horiek, baina hor dauden horiek. Entzuna dut Siberia aldean badirela 20 cm luze diren eta 15 metroko sustraiak dituzten landareak. Hotzetik ihesi lurpean behera hedatzen direnak. Esan didate, era berean, badirela Namibiako basamortuan berotik ihesi uraren lapurretan ibiltzen diren sustraiak. Horrenbeste lurperatzen dira, eze lur azpiko urak xurga baititzake. Ikusten ez direnak, baina hor daudenak, urte osoan zehar.

Iruditzen zait, ordea, gure ingurune honetan, ez hotz, ez bero, sustrai sakon gutxi garatu dela. Zuhaitz ederrak, lodiak, hostotsuak, berdeak, horiak baditugu. Lurzoru karetsua dugula esan dit lagun batek, sustraiak hedatzea zaila dela ingurune honetan. Itxurakeriaren ekosistema honetan arazoa substratua ez delakoan nago, ordea. Eta aliseoak honaino iristen ez direnez sekula garatuko ez diren susmoa dut.

***Antton Alberdi***

# [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



## MARI PICON

FERPI DENDETAKOA

**• Zer egiten duzue Ferpin?**
Moda inguruan dihardugu. Andrentzako erropa denda dugu, batetik, eta konponketa denda, bestetik.

**• Erropak saltzaile on batek zer izan behar du kontuan lana ondo egiteko?**
Eramaten dena kontuan izatea. Bezeroak ez du pasatutakoa nahi. Zerbait berezia nahi izaten du, diseinua duena.

**• Moda jarraitzea erraza da?**
Ez da erraza. Espainian produkzioa jaisten ari da eta inportazioa igotzen. Kalitatezko jantziak topatzea zailtzen ari da.

**• Taila eskasia batez ere nagusi ala gazteen arazoa da?**
Emakume nagusientzat zailagoa da taila handiak topatzea.

**• Nolatan jarri zenuten konponketen denda?**
Beharra zegoela ikusi genuen, baina ez genuen uste hainbesterako zenik. Oso lanpetuta gaude, jostunik ez dago-eta. Belaunaldi gazteek ez dakite lan horiek egiten.

**• Zer adineko jendea joaten da konponketak egitera?**
Denetatik. Gazteak eta nagusiak. Gizonezkoak ere.

**• Zer konponketa dira ohikoenak?**
Barrenak hartu eta prakak estutu. Denetatik egiten dugu.

**• Konponketa jantzia bera baino garestiago izan liteke?**
Kasu batzuetan bai, jendeak erropa hori maite duelako.



## [AKORDATZEN NAIZ]



### JOSE ZUBIZARRETA

1924an jaioa

### «Kirola»

Asko gustatzen jata pelotia. Lehen ez nintzan partiduetara juaten baina azken 20-30 urtietan partido asko ikusi dittut. Oiñ berriz zabaldu dabe Eibarko frontoia. Pelotari bat bestia baiño hobia izango da, baina txarrik ez dago. Herri kirolak ere topera segidu dittut. Harrijasotzia gutxien gustatzen jatana. Aizkolarixak asko. Korrikalarixak ere gustatzen jataz, Mugerza krosa asko segitzen naban lehen, orduan banakixan zeiñ zian onak, zeiñ txarrak... baiña gero laga ein nion. Batzutan juten gera eta beste batzutan ez. Apustuak ere eitxen genduazen batzutan, baiña horretarako probetara juan bihar izaten zan eta ez zaguan erreztasunik. Kamioian juaten giñan batzutan eta oiñez ere bai. Sargoate aldetik Azkoitira juten giñan, Elosura ere bai hango jaixetara. Oiñez asko ibiltzen ginan.



## [GURE BERBAK]

### *Morfologia (9): NONGO*

NORAKO BIDIA / NUNGO BIDIA

- *Amorobietarako bide batera erten gendun. Eta gero, handikan, ya Bilbora belaxe juan giñan.*
- *San Pedroko bidian gertau jakun istripua.*

Ez da egokixa era honetako sintagmetan –RA kasu-markia huts-hutsian jartzia: adibidez, ez dira oso egokiak Elgoibarren urtero antolatzen den kirol lehiaketa baten izena (orain zuzendu dutena):

- *(??) Pilarika egunian izaten dok San Pedrora igoeria.*
- *(??) Andaluziara biajia oso nekagarrixa izaten da.*

Egokixagua litzateke -KO kasu-markia erabilliz:

- *San Pedroko igoeria*
- *Andaluziako biajia oso nekagarrixa izaten da.*

Onargarrixa lirakez honako hauek ere:

- *San Pedrorako igoeria*
- *Andaluziarako biajia*

Hala ere, azken hauek ez dira bestiak bezaiñ naturalak, -KO hutsa debenak bezain naturalak, elgoibartarron jardunian behintzat. Gramatikalak izan arren, batzuek gramatikarixen forma analogikotzat jo izan dittue, eta, erabillera murritzagua dauke Elgoibarko hiztun adiñekuen artian. Esate baterako, nola esaten diue Donostiara dixen autobusari? Ba,

- *San Pedrorako igoeria*

Ez dabe –RAKO hori zehazteko biharrik aurkitzen kasu askotan.

*Jesus Mari Makazaga*

*II. urteurrena*



## URTEURRENAK

2005eko azaroaren 20an hil zen ***Blas Mugerza Iriondo***
eta 2006ko azaroaren 6an hil zen ***Jesus Mugerza Gorostiza***

***"Beti egongo zarete gure bihotzean"***

*I. urteurrena*



ERMUARAN BIDE, "ONU"

# ANIZTASUNAREN ARGAZKI BILDUMA

*Gaur egun, Ermuaran Bide du izena; lehenago, 21 de Septiembre zen. Hala ere, ONU esaten diote elgoibartar gehienek orain mende erdi jatorri ezberdin eta anitzetako lagunak hartu zituen kaleari. Bizilagunen artean sortutako harreman eta elkartasun handiak nortasun berezia eman zion ONUri. Baldintza zailak izan arren, auzokideak harro daude bertan bizi izanaz. Hona hemen, ONUren historiaren argazki batzuk. Gehiago, www.elgoiBARREN.net eta Udal Liburutegian ikus daitezke.*

Bazkari berezia egin zuten irailean Ermuaran Bide kaleko oraingo eta lehengo 150 bizilagunek. Egun oso berezia izan zen eta ez dute ahaztuko. Zaharrak, gazteak, oraindik auzoan bertan bizi direnak eta gaur egun kanpoan dabiltzanak (Bartzelona, Santander...) izan ziren bertan. "Auzoak konnotazio marginala izan badu ere, bazkarian auzoko kide izatea aldarrikatu genuen", azaldu du Andoni Segundok.

Oraindik ere auzo sentimenduak indar berzia du ONUn. "Auzoan euskaldunak, galiziarrak, gaztelarrak eta portugaldarrak bizi ginen. Asko, kanpokoak. Horrexegatik esaten diogu ONU. Denak familia berekoak ginela zirudien. Etxeetako ateak beti egoten ziren zabalik", dio Gerardo Oterok.

Elgoibarrera 50. urteetako inmigrazioak ekarri zituen etorkinak. "Nire aitita-amamak azkoitiarrak ziren eta Elgoibarrera etorri ziren, ONUra. Amamak gaztelania ikasi behar izan zuen, portaleko guztiak kanpotarrak zirelako. Atzerritarra nire amama zen", esan du Ana Aizpuruak.

Oso garai zailak izan ziren, premia handikoak. Baziren hogeita hamar laguneko etxeak. Auzoan industria asko zegoen. Gainera, Txerridunaren txerri almazena eta arraina gordetzeko lokala ere bertan ziren. Udalak albo batera lagata izan du auzoa eta beste edonon baino inbertsio gutxiago egin direla diote bertakoek.

Auzokideen arteko laguntasuna osooso estua izan da. Errekaren inguruko pasarteei, Marañonen baserriari, trenbideari eta, batez ere, bizilagunei buruzko oroitzapen politak gordetzen dituzte.



Fernandez familia



Erreka etxe azpitik pasatzen zen lehen



Goiko ilaran: Juan Carlos Armero, Javi Garcia, Jose A. Arriola, Carlos Agirre, Josetxu Garcia eta frantziarra. Behean: Txomin Armero eta frantziarra.



*Errotazarre*



*Zutik, Rosabel, Marañon, Arantxa Iruretagoiena. Makurtuta, Luis Carlos.*



*Pedro Urain, "Txarriduna"*



*Pedrito Rodriguezen bataioa*



*Marivi, Inma, Paquito, Ana, Jose eta bainua hartzen Aurori*

## [ PROTAGONISTA ]



### Markel Olano

Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak gure herria bisitatu zuen eguaztenean. Udaleko agintariekin bildu zen eta, besteak beste, garraio, ongizate eta kirol arloetako gaiak landu zituzten. Eguerdi aldean Danobat enpresa bisitatu zuten. Ate irekien jardunaldiak egiten dihardute azken bi asteotan eta bertako arduradunekin bildu zen Markel Olano. Elgoibarko industria garapenak dauzkan erronka berriak eta handitzeko dauden zailtasunak izan zituzten mintzagai. Gipuzkoako Foru Aldundia proiektuak garatzen saiatuko dela azaldu zuen Olanok.

## [ NOTIZIA ]

# Elgoibarko gazte bat jipoitu egin zuten zapatu gauean Toletxe inguruan

Bizkaia aldeko gazte koadrila batek 14 urteko elgoibartar bat jipoitu zuen zapatu gauean Toletxe inguruan. J.G. etxera zihoala gertatu zen erasoa. Gurasoek BARRENi azaldu diote nola izan zen: "Zigarro bat eskatu zioten eta semeak tabakorik ez zeukala erantzun zienean, zeraman diru guztia eman ezean, labana aterako ziotela mehatxu egin zioten". Dirurik ere ez zeukala erantzun zuenean, lurrera bota eta demaseko jipoia eman zioten, "16-17 urteko gazte helduagoek". Aurpegian jaso zituen kolpe eta ostikada gehien.

### Beste gazte bati dirua kendu

A.J. gazteak ere izan zuen sustoa bizkaitar hauekin. 22:00ak aldera pizza bat erostera zihoan eta gainean zeuzkan 10



*Artxiboko irudia*

euroak kendu zizkioten. "Ostikadak ematen saiatu ziren, baina ihes egin zuen", esan dute gurasoek. Udaltzaingoan jarri zuten salaketa eta, etxera bidean, trenean, identifikatu zituzten erasotzaileak. Informazio gehiago eta herritarren iritziak *www.elgoiBARREN.net* gunean.

## [ ZENBAKIA ]

**136.000**

Elgoibarko Udalak 136.000 euro inbertituko ditu Merkatu Plazan igogailua jartzeko. Alfredo Etxeberria alkatearen esanetan, Merkatu Plazako eraikina zaharkituta dago eta berrikuntza orokorra behar du. Igogailuarekin hasiko dira. Udal Euskaltegiak ere erabili ahal izango du igogailu berri hori.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Hotza eta gaztainak eskutik helduta iritsi ohi dira eta, aurten ere, batera etorri zaizkigu. Magosto Eguna ospatu zuten joan zen zapatuan Galizia Etxekoek. 500 kilo gaztaina eta 200 litro ardo banatu zituzten. Bi eurotan saldu zuten Galiziako edalontzi tipikoa, eta Ribeiro ardoa doan ematen zuten, gaztainekin batera. Gumersindo Vila Galizia Etxeko arduradunaren esanetan, sekula baino eguraldi hobea izan zuten eta jende asko hurbildu zen jaira. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete ospakizunean parte hartu zutenei.

# Gipuzkoako ehun gaixo eta ezindu bildu ziren Elgoibarren



San Bartolome parrokiako pastoralak antolatuta, Gipuzkoako gaixo eta ezinduak elkartu ziren joan zen domekan Elgoibarren. Urtero izaten dute zita gure herrian, eta oso pozik etortzen dira. Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia, Zumaia, Zarautz, Orio eta Zestoako gaixoak etorri ziren. Guztira ehun lagun inguru bildu ziren.

### Meza eta bazkaria

Eguerdiko 12:00etan eureri eskainitako meza izan zuten San Bartolome parrokian. Meza Nagusiaren ondoren atera genuen argazkia bolatokian. Irrifartsu hartu gintuzten, gustura zeuden. Eurentzako egun handia izaten da hau. Denak elkartu eta euren esperientziak trukatzeko eguna izaten da.

Eguerdiko 14:00ak aldera bazkaria egin zuten Sigma jatetxean. Antolatzaileak oso gustura azaldu dira, beste behin ere, eguna primeran atera delako.

## Ibarretorre baserrian 92 kiloko kalabaza jaso dute



Jose Zubizarretak 92 kiloko kalabaza jaso du Sallobente auzoko Ibarretorre baserrian. Madariagatik gora dagoen Otarre jatetxekoek eman zioten hazia: "Otarreko kalabazak 75 kilo hartu zituen iaz, baina honek marka guztiak hautsi ditu". Maiatzean erein zuen hazia. Apur bat ureztatu, baina kasu handirik egin gabe, abuzturako tamaina harrigarria hartu zuen: "Eta hori, orturako urte txarra izan dela aurtengoa", adierazi du. Baserri aurrean dagoen Doimak enpresan neurtu zuten kalabaza: 74 zentimetroko perimetroa eta 92 kilo. Ganadua elikatzeko erabiliko duela esan digu. Jose Zubizarretaren hitzak *www.elgoiBARREN.net* atarian ikusi eta entzun ditzakezue.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Dirulaguntzak euskara sustatzen duten enpresentzat

Ardatza egitasmoaren baitan, Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak, euskara planak diseinatu edo abian jartzen dituzten enpresei ematen dizkien diru-laguntzak arautu ditu. Interesatuek 943744366 telefonoan jaso dezakete informazio gehiago.

### EAE-ANV alderdiaren ekitaldi politikoa azaroaren 24an

Euskal Herriaren independentzia aldarrikatzeko asmoz eta, batez ere, EAE-ANV hurrengo hauteskundeetan egon ahal izateko, ekitaldi politikoa egingo dute hilaren 24an Plaza Handian. Elgoibartar guztiei egin diete deia ekitaldi honetan parte hartzeko. Eguerdi aldera argazkia aterako dute.

### Pedro Muguruzako kale berria ireki dute

Pedro Muguruza Etorbideko kale berria ireki zuten atzo. Txarriduna hotelaren atzeko aldetik Toletxe ingururaino doa kalea, norabide bakarrean. 50 auto inguru aparkatzeko lekua dago bertan eta Plaza Txikiko sistema berarekin funtzionatuko du: OTA-TAO jarriko dute. Doan izango da eta ordu eta erdiz bakarrik aparkatu ahal izango da. Horrekin batera, parke berria egin dute. Jarlekuak eta jende helduak ariketak egiteko aparatuak ipini dituzte. Pedro Muguruzako kale zaharra oinezkoentzako prestatuko dute aurrerantzean.



Datorren urtean egingo dute Andikanotik Maltzagara arteko bidegorria.

# Pasieran ibiltzeko leku nahikoa dago Elgoibarren?

**AINHOA CASTRILLEJO**
Dendaria
36 urte



"Ez. Ni umeekin ateratzen naiz kalera eta askotan San Lorentzora joaten gara, baina auto asko ibiltzen da. Elgoibarren behar dira oinezkoentzako pasealekuak."

**ANA RANILLA**
Komertziala
30 urte



"Ez. Arratsaldeetan alde zaharra oinezkoentzako jartzen dute, baina bestela ez dago asko. Arrasate aldean badaude bidegorriak. Ideia oso egokia dela uste dut."

**GLORIA ARANGUREN**
Etxekoandrea
69 urte



"Egon badago. Nik bost kilometro egiten ditut egunero pista beltzean. Andikano, San Lorentzo, Netto, Mintxeta... Gehiago egin daitezke. Autorik gabe hobeto."

**AITOR GUTIERREZ**
Urtzailea
34 urte



"Paseatzeko lekua badago, baina errepidean, auto asko ibiltzen dira. Jende nagusiarentzat ez dira oso leku egokiak. Autorik gabeko pasealekuak behar ditugu."

# [ BAI ala EZ? ]

## Izango al zinateke Behobia-Donostia proba egiteko gai?

**BAI %74**

"Bai. Korrika egiteko ez da prestazio handiegirik behar. Orduak sartu behar dira entrenatzen. Fisikoki apur bat prestatuz gero, erraz egingo nukeela uste dut."

**EZ %36**

"Ez. 21 kilometro korrika egiteko denbora asko pasatu behar da aurretik entrenatzen. Nik ez daukat korrika egiteko ohiturarik, nire birikek ez dute aguantatzen."

Datorren asterako... Oinarrizko produktuen prezioak garestitu egin dira.

## Prezioen igoera dela-eta, erosteko ohiturak aldatu al dituzu?

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.

Talasoterapia Zelai ZUMAIA

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
**Zumaiako Zelai Talasoterapian.**
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozelai.com

# Edergintza

## Arazo estetikoei irtenbidea eman!










*Neguan arropen azpian ezkutatzen garenez, ahaztu egiten dugu estetika.
Uda gerturatzean akordatzen gara gure gorputzeko akatsekin, baina orduarako berandu izaten da. Gaurkoan, estétika arazoei irtenbidea emateko makina berri bat aurkeztuko digu Judith edergintzak.*

**1.** Zirkulazio eskasak, arazo estetika handiak sor ditzake: zelulitisa, edema edo gorputzaren handipuztea. Kasu honetarako DREN aukera eskaintzen digu makinak . Drenajea egiten du gorputz osoan hanketatik hasi eta besoetaraino. Soberan ditugun likido eta toxinak kanporatzen dizkigu, zirkulazioa hobetuz eta azala lehun-lehuna utziz.



**Emaitzak:**
- zaren handipuztea gutxitu
- Beso eta hanketan sentsazio lehuna lortu- Zeluisa gutxitu.

**2.** Urteak pasa ahala, grasa azal azpian geratzen zaigu. Gorputzak ere forma galtzen du, nahiz eta dietak, kirolak... zerbait hobetu; ez du guztiz desagertarazten. Horretarako LIPO aukera eskaintzen digu makinak grasa desegin eta gorputzari forma emateko.



**Emaitzak:**
- Bolumena gutxitu
- Gorputza birmoldatu

**3.** Adinarekin poliki-poliki, gorputzeko atalak, azalak, muskuluak.. Indarra galtzen dute, tonifikazioa galduz. Besoak, iztarrak, tripa gehien arduratzen gaituztenak dira. TONIC tratamenduak laguntzen du muskulatura indartze



**Emaitzak:**
- Bolumena altxatzen du
- Gorputza orekatua lortu
- Gorputza malguagoa eta abilagoa

10 tratamendu baino gehiago. Osasun, edertasun era ongizatea baharrezkoak ditugu, orain da zure ardurei erantzuna emateko momentua. Informa zaitez Judith edergintzan.

*Judith Zabala - Judith Edergintza*

Judith
EDERGINTZA
Errosario Kalea,19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667742118



*Hileta-elizkizun bat egin aurretik elkartu gara. "Sermoirik gatzenak izaten dira", adierazi digu. Bere hezkuntza orain dela 50 urtekoa dela esaten badu ere, gutxik esango lukete hori bere adierazpenak entzunda. Herritarrek jakin badakite ez dela isilik geratzen den horietakoa. Eta elkarrizketa honetan ere, badu zer esateko fedearen, Vaticanoren edo Elizak duen paperaren inguruan.*

## ANGEL BASTERRETXEA

MENDAROKO APAIZA

# «Aldaketa gogorra dago gure gizartean eta ez dakigu fede baten porrota den ala ez»

**• Noiztik deitzen zaituzte Don Angel?**
Etorri nintzenetik, 1962. urtetik. Gurasoek Don Angel deitzen didate. "Hor doa Don Angel", diote eta horrela deitzen naute gero seme-alabek. Medikuari ere Don deitzen zitzaion. Don guztiak gu hiltzean bukatuko dira.

**• Zer egin liteke bokazioa sortzeko?**
Badago gure elizbarrutian bokazioak sortzeko arduradun bat baina ez du fruiturik eman. Hori galtzen ari da momentuz. Gure garaian bokazio asko zegoen eta seminarioak ireki ziren, Donostiakoa 1953. urtean. Egongo ginen 1.500 mutil inguru. Ordutik hamabost urtera, 1968. famatuan, Donostiako seminarioa ia hutsik geratu zen. Bokazio krisi hori latza da eta aspalditik dator. Aldaketa gogorra dago gure gizartean eta ez dakigu fede baten porrota den ala ez.

**• Ez dago ezer egiterik?**
Ahalegintzen dira baina ez dira etortzen.

**• Mendaroko parrokiara ere gazte gutxi hurbiltzen dira?**
Oso gutxi. Eten handia dago elizara joatearekin Euskal Herria osoan. Hileta bat edo ezkontza bat badago joaten dira. Baina elizara joaten ez dena fedegabea al da? Gure garaian, zutabeak heziketan familia, eskola eta eliza ziren. Zeinek pentsatu behar zuen garai hartan aitak eta amak ez zutela betiko elkar maite behar. Gizartea asko aldatu da.

**• Apaiz edo abade izatea galdu da betiko?**
Ez dakit. Betiko ezkontza hori ere beste aldaketa gogorra da. Zerga-

tik egin behar da fede bizitza orain arte egin den moduan. Erakutsi ziguten mundua saihestu behar zela eta garrantzitsuena zerura joatea zela, bekaturik gabe. Niri interesatzen zaidana da sinestuna edo ez izatea.

**• Misiolari izateko tentaldirik izan al zenuen?**
Agian astakeria bat esango dut, baina misiolariek etxean egotea hobeto dute. Bakoitza errespetatu behar da dagoen lekuan: duten gauza onak mantendu eta behartu gabe irakatsi; ez da inposatu behar. Erlijioa zer da? Galdera batzuk egitea; zentzu bat ematea. Lehenengo gauza pertsona egitea da.

**• Eta jendearen zerbitzura egotea, ezta?**
Bai. Abusu bat egon da. Euren burua jauntxotzat hartzen zuten apaizek eta jendearen kontzentziaren jabe ziren apaizak. Erlijioak herria menpean hartu zuen, baina ez behar zuen bezala. Orain hainbeste krisi dago! Gure misterio guztiak zientziak argituko ditu, ea egia den.

**• Zure fedea nola sortu zen?**
Soziologia baten barruan. Erlijioa hau da: zu eta ni bizi gara eta hona etorri gara, nork bidali gaituen jakin gabe. Ateo batek galdetu egiten du. Sinistea edo ez sinistea biak dira gauza txarrak. Gure dotrina zaharrean zazpi sakramentu daude, baina nik esaten dut sakramentu handiena dela norberaren bizitza. Eta gainera sinesten baduzu gu denok Jaungoiko batengandik gatozela, are eta sakratuago.

**[«Sakramentu handienak ez dira zazpi, norberaren bizitza baizik»]**

**• Ez zara, orduan, itsu-itsuan Elizaren ardatz ofiziala jarraitzen duen horietakoa...**
Niri ez zaizkit interesatzen altarean dauden santuak. Zientziak hemen eta beste







herrietan gure adelantuak ekarri zituen. Duela ehun urte apendizitisa bazeneukan, hil egiten zinen. Horiek dira santuak, pertsonei lagundu dietenak.

**• Eliza ofizialak beldurra die aurrerapen sakonei?**
Bai. Zenbat arazo daude eutanasiarekin, in vitroarekin...

**[«Agian astakeria bat esango dut baina misiolariak etxean baleude hobeto»]**

**• Apaiz aurrerakoitzat duzu zure burua?**
Besteek esango dute naizen edo ez. Nik baldin badakit nire arrebak izango duela ume bat eta datorrela oker edo gaixo, gu ez gara bizitzaren jabeak probak egiteko? Onerako den guztian zientzia ibili behar da lehenago.

**• Emakumeak meza ematearen alde zaude?**
Zergatik ez!

**• Vatikanok ez du hori esaten.**
Vatikano Evanjelioen aurrean herexia bat da. Herexeak ziren desbideratzen zirenak benetako doktrinatik.

**• Ratzinger bera zer iruditzen zaizu?**
Ez da batere egokia. Azkeneko adibidea da orain beatifikatu dituzten Gerra Zibileko horiek.

**• Joan Paulo II.a ere azkarregi beatifikatu zuten ala ez lukete beatifikatu behar?**
Beste batzuk ez zituzten beatifikatu, Joan XXIII. bat, edo Salvadorren hil zituzten jesuitak.

**• Askapen teologiaren aldekoa zara?**
Ez aldeakoa, ez kontrakoa. Erlijioak ez badu, askatzen zertarako da?

**• Mendaroko herritarrei zerbait esan nahi diezu edo sermoiekin nahikoa da?**
Ezagutzen nauenak badaki niretzako erlijiorik ederrena bizitza dela. Bizitza da erlijiorik ederrena.

Gazte gaia...

# HORMETAN IDA

HERRIAN ERE BADITUGU GRAFFITIGILEAK. AKASO EZ DITUZU EZAGUTUKO BAINA EZ DA HARRITZEKOA. GRAFFITIGILE BATEK EZ DU SONARIK BILATZEN, EZ DU BERE AURPEGIA EZAGUN BIHURTZEKO ASMORIK ERE. LAN ANONIMOA DA, EUREN LANEK NAHIKOA HITZ EGITEN DUTELAKO. NORTZUK DIREN ETA NOLA LAN EGITEN DUTEN GERTUTIK EZAGUTZEKO AUKERA PAREGABEA IZAN DUZUE. IZAN ERE SINUOSE ELKARTEAK ANTOLATUTA SUKALDARITZA ETA MUSIKA BATU DITUEN EKITALDI BATEAN, SUKALDEKO HORMAK MARGOTZEN JARDUN ZUTEN ELGOBARKO GANIX ETA AZPEITIKO JONF GRAFFITIGILEAK. BERAIEKIN HITZ EGIN DUGU. HAU DA EMAITZA.

Graffiti baten atzean askotan arte lantxo bat dago, zerbait esateko beharra edo batzutan zirriborro bat besterik ez. gaNIX elgoibartarraren atzean lagun handi bat dago, Azpeitiko Jon alegia. Berarekin hasi baitzen arrotza egiten zitzaion mundu horretan, patinetean, hip-hop musikan eta beste bizimodu batean hasi zen bezalaxe. gaNIXek orain 24 urte ditu eta gogoratzen du nola hasi zen, noiz burutu zuen lehen graffitia. Duela zazpi urte. "Industrialde batean izan zen eta zortzi orduko lan baten emaitza izan zen". Ez digute adierazi zein izan zen lan horren fruitua. "Izen bat izan zen", dio gaNIXek.
Ez daukagu datu gehiagorik baina bai hitz egiten jarraitzeko arrazoi gehiago. Argazkirako aurpegia ematen ez badute ere, harro daude egiten dutenarekin, euren nortasuna eraiki eta aldarrikatzeko modu pertsonala delakoan. Pixkanaka-pixkanaka, graffitien munduan heldutasuna lortu ahala, gaNIX konturatu da trebea dela graffitiak egiten eta aprobetxatu egin behar dela dohai hori. Horrexetan dabil, 17 urterekin lehen aldiz ezagutzen ez zuen ibilbide horretan hasi zenetik. Eguna pasatzeko modu bat zen hasieran, baina hasieratik jabetu zen egiten zuena egiten zuela ere, bere margotzeko era berea zela.



**Ez dago araurik**

"Bakoitzak bere estiloa du, eta beste norbaiti kopiatzen saiatzen bazara ere, zure nortasuna aireratuko da", adierazi digu. Izan ere ez dago araurik eta norberak bere izateko modua du. Ganixen lanek itzalekin jokatzeko ohitura dute. "Garbiak dira, ongi eginak. Horretan saiatzen gara bereziki. Hori da etxeko espezialitatea", dio, bere lagunaren gidaritzapean. Ez dakite noiz arte jarraituko duten graffitiak egiten, akaso ilusioa galdu arte, baina spray-a eskuetan duten bitartean boteretsuak sentitzen dira.

**Graffitigileak gazteak dira**

Gazteak dira eta espiritu gazte eta berritzialea funtsezkoa da jardun honetarako. "Spray-ak ere denda espezializatuetan erosten ditugu eta prezio onean saltzen dizkigute", adierazi digu gaNIXek. Esan beharrik ez dago graffitiaren munduak baduela etorkizunik, zer esan eta zer adierazi beti egongo delako. "Baina hemendik hamar urte barru ez dakit zer egiten egongo naizen. Nork daki?", esan digu.
Bien bitartean ahal duten lekuan, baina jendeari errespetatuz, sprayekin komunikatzen jarraitzen dute, hormari zentzua ematen.

**Udalen konfidantza**

Argi dute udalen konfidantza lortzeak euren lana aintzat hartzeko modua izan dai-

AZLE



tekela. Baina ez legoke auzi horretan paradoxarik. Errebeldeak dira mundu hobe baten nahia dutelako, eta sprayaren bidez, eta kolore eta lerro finen bidez, euren mezuek indarra hartzen dutelako. Anonimoak dira, baina euren lana aintzat hartzea eskertzen dute, egungo lengoia delako graffitiarena eta hainbat elkarte eta eragilerekin batera lan egiteko prest daudelako.

**Erronka berriak**

Jendearen agerian lana agertzeko aukera gutxi izaten dutela-eta, Sinuose elkartearen deia jaso zutenean, pozarren erantzun zieten. "Guretzat erronka berri bat da horrelako gauza batean parte hartzea, baina ilusioz egingo dugu", esan digu gaNIXek bere burua jendartean probatu baino lehen. Atzo izan zuten hainbeste desiatutako ekimena. Dj Amsiak soinua jarri eta mokadu bat prestatzen zuten bitartean, eurek graffitiak egin behar izan zituzten.... 51 minutu luzez! Zirriborro antzeko bat prestatu zuten. gaNIXek sukalde batena izango zuen eta bere lagun JonFek sukaldari batena.

**Txoko batean**

Grafittiaren historia 60.eko hamarkadan bukaeran New Yorkeko metroan hasten omen da. Bertan hasi zen Demetrius izeneko Washingtongo gazte bat bere ezizena idazten; TAKI 183 hain zuzen ere. Ondoren autobus geltokietan, monumentu publikoetan, baina bereziki Manhattaneko metro geltokietan idazten zuen. Graffiti bat egiteko hainbat leku daude baina kaleak biderkatu egiten du mezuaren indarra, espazio publiko horretan jendeak euren lana balora dezakeelako. Guk gazte txoko batean topatu genituen.

## euren hitzetan

**HIZTEGIA....**

**Bonbardeatu**: Honek isuna dakar. Argi utzi digute gaNIXek eta jonFek eurek ez dutela hori egiten. Leku guztietatik margotu.
**Idazlea**: Graffitigilea.
**Tag**: sinadura
**Toy** (jokoa): hasiberria
**Flop**: Trenean egiten dena.
**Pota**: Graffiti azkarra.

**LOTURAK....**

Lotura hauek lagunduko dizuete graffiti eta street arteko munduan sartzen:

* Art Crimes
* Ecosystem
* 123 Klan
* Daim
* Can Two
* Banksy
* Flying Fortress
* Sye (Extralargos Crew)
* Euskadi Graff

ERAKUSKETA GIDATUA

# Atxutxiamaikak jostailuei buruzko erakusketa eskainiko du

Erabiltzen ez duzun jostailuren bat baldin badaukazu etxean, orain baduzu non laga. Izan ere Atxutxiamaika aisialdi elkarteak jostailu bilketa egingo du beharra duten familietan banatzeko. Hala, azaroaren 23tik 26ra kultur etxeko sotoan erakusketa gidatua antolatuko dute. Gabonak gertu dauden honetan, jostailuen gaineko ikuspegi kritikoa zabaltzea da asmoa eta, bide batez, guraso, haur eta hezitzaileentzat eztabaida aproposa eragitea. Informazioa eskaintzeaz gain, merkatuan hedatzen diren hainbat jostailu (belikoak, pedagogikoak, didaktikoak...) ezagutu eta aztertzeko aukera izango da. Jostailu bakoitzak haurraren garapenean betetzen dituen fun-tzioak ikertzeko aukera ere izango dute hurbiltzen direnek. Horrez gain, jostailuen kalitatea (materia egokia, iraunkortasuna...) ezagutzeko parada izango da. Gurasoentzat orri informatiboak egongo dira eta jostailuak ukitu, manipulatu eta horiekin jolasteko aukera izango da. "Birziklatuz, jostailuak sortzeko" (haurrentzako) eta "materialak birziklatuz" izeneko tailerretan jostailuak sortuko dituzte. Sarrera doakoa da. Barixakuan eta astelehenean 17:00etatik 20:00etara egongo da irekirik eta astebukaeran, berriz, goizez.




## Laurogei gaztetxok eman dute izena Kuadrillategin

Bigarren urtea da Elgoibarko Izarrak, Udalarekin elkarlanean, Kuadrillategi egitasmoa martxan jarri duela. Joan zen ikastaroan bezala, hamabi-hamalau urte bitarteko gazte koadrilei eman diete aukera egitasmoan parte hartzeko (DBH 1 eta DBH 2) eta azkenik, laurogei gaztetxo animatu dira. Elgoibarren adin tarte horretan guztira 181 gaztetxo daude eta nabarmentzekoa da gazte horien erdiak ia eman duela izena egitasmoan. Guztira bost koadrilak hartuko dute parte, eta hiru taldetan banatuko dira. Eurekin lanean sei suspertzaile ariko dira. Astean bi-hiru ordutan eskaintzen zaie aisialdiaren truke eta gazteek elkarrekin euskara hutsez hitz egin beharko dute ordu horietan guztietan. Saio gehienak zapatu arratsaldeetan izango dira, baina hainbat bisita egiteko asmoa dute.

## Duo Plaentxik lehen diskoa kaleratu du



Hogei urte daramatzate Jose Luis Badiolak eta Jesus Urizarrek Debabarreneko kaleak eta bazterrak alaitzen eta azkenean animatu dira euren lehen diskoa ateratzera. Ezin zezakeen beste titulu bat izan diskoak: Duo Plaentxi. Lanak Mexikoko eta Hego Amerikako herrialde askotako hamalau kantu biltzen ditu, gitarrekin lagunduta: "En mi Viejo San Juan", "Veracruz", "El crucifijo de piedra" eta beste hainbat. Horien artean ez dago "Malagueña salerosa", beraiek hain ezagun bihurtu dutena. Euren esanetan, nahikoa lan eman die disko hau egiteak. Ondarroako estudio batean grabatu zuten, hamabi orduko "jardunaldi gogor" batean. Elgoibarren bizi diren lagun horiek ez dute aurkezpen berezirik egiteko asmorik. Nahi duenak Kaia, Orbea eta Ibaiondo tabernetan eskura dezake Duo Plaentxiren lehen diskoa, hamar euroren truke.

# Uxue Alberdi Bertsolari Txapelketaren finalaurrekoan parte hartuko du domekan

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren lehenengo finalaurrekoa jokatuko da bihar 18:00etan Eskoriatzako kiroldegian. Taula gainean Uxue Alberdi, Jon Martin, Jesus Mari Irazu, Ainhoa Agirrezaldegi eta Beñat Gaztelumendi ariko dira bertsotan. Sarrerak egunean bertan jarriko dira salgai Eskoriatzako kiroldegian goizeko 11etatik 13etara eta arratsaldean 3retatik 6etara. Sarrera bakoitzak 10 euro balioko ditu, baina Bertsozale elkarteko bazkideek 7 euro eta 16 urtetik beherakoek 5 euro ordainduko dituzte. Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak autobus txartelak eta abenduaren 16ko finalerako sarrerak jarri ditu salgai Uribitarteko egoitzan, 25 euroren truke. Bertsozale elkarteko eta Elgoibarko Izarrako kideek 20 euro ordainduko dute eta bi elkarteetako bazkideek 15 euro, 16 urtetik beherakoak bezala. Erosteko azken eguna hilaren 26a izango da.



**Bertso afaa**

Gaur gaueko 9etan bertso afaria ospatuko da Baltasarren. Andoni Egaña eta Joxean Agirre arituko dira nor baino nor, afalondoa giro ederrean pasatzeko asmoz. Uxue Alberdi gai-jartzaile ibiliko da. Bihar izango duen hitzordurako primeran etorriko zaio bi beterano horien tenplea eta maisutasunarekin gozatzea.

## Sabin Oregiren jaiotzak ikusgai Kultur Etxean



Saturraranen biltzen dituen maskor eta harearekin jaiotza ederrak prestatu ditu Sabin Oregik. Erakusketa azaroaren 19a bitartean ikus daiteke, eta bertan pazientzia eta maitasun askorekin egindako lanak erakusten ditu, bi metroko luzera duen obra bat barne. Berau erabiliko du bere etxean jaiotza egiteko, Gabonetako argi eta guzti. Bisitariak eros dezake gustuko duen arte-lantxo hori: Nazareteko Jesus haurtxo jaioberria, etxaldeak, edo objektu bitxiak. Oregi prest dago azalpen guztiak emateko.

### Piraten jaia

Herriko haurrek jaramon egin zioten pirata jantzita etortzeko deialdiari eta pasa den zapatuan Plaza Handia pirataz josi zen. Giro ederra egon zen, eta joko giroa nagusitu zen. Tailerrek erantzun ona izan zuten, eta aurpegia marrazteko prest agertu ziren, edo ezpatak egiteko puxika bidez. Dantzak ere ez ziren falta izan, musika baitzegoen. Helduagoek ere parte hartzeko aukera izan zuten, altxorraren bila.

### Logotipo lehiaketa

Elgoibarko Gaztelekuak eta Gazte Informazio Guneak Gaztelekuko logo lehiaketa antolatu dute. Baldintza bakarra 13 eta 18 urte bitarteko elgoibartarra izatea da eta Gaztelekuko logoa eta izena (azken hau aukeran) adostu beharko dute. Epea abenduaren 17an, eguerdiko 13:00etan ixten da eta lanak Gazte Informazio Gunean aurkeztu beharko dira. Lan hau edozein teknika edo material erabiliz egin daiteke, baina aurkezpena paperean egin beharko da, A4 formatuan. Saria 300 eurokoa izango da, Elgoibarko saltokietan erosketak egiteko diru-txeketan. Saria abenduaren 21ean jakinaraziko da.

### IHMko mintegia

Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuak (IMH) "Lanbide Heziketa, Irakaskuntza Eraberritzen" jardunaldia antolatu du datorren azaroaren 23rako. Mintegiaren helburuak dira POPBL (Project Organized and Problem Based Learning) metodologiaren erabilgarritasuna Lanbide Heziketa barrutian zehaztu eta informazio elkartrukaketa osatu eta tartekatzea.

### Etorkinentzako ikastaro berria

IMHren CNC Tornuko operatzaile prestatzaile ikastaroa izango da eta praktikak abendua eta urtarrila artean burutuko dira. Urrian "Lan tailerrak ingurune industrialean sartzeko eta enplegurako" proiektuaren ekintzetako bat, etorkinentzako Operatzaile-prestatzaile CNC tornu ikastaroa, alegia, martxan jarri zuen.

## BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA

# Jose Antonio Ruiz, elgoibartarrik bizkorrena

Behobia-Donostian parte hartu zuen jende oldearen barnean, makina bat elgoibartarrek izena eman zuten baina ehun antxintxikarik lortu zuten proba bukatzea. Horien artean bizkorrena, beste behin, Jose Antonio Ruiz del Rey izan zen. Bien bitartean, Mendaroko zortzi lagunek amaitu zuten. Nesketan azkarrena Pilar Arriola Diez izan zen. Aipatzekoa da Igor Elizbururen partaidetza, zortzi minututan hobetu baitzuen iaz eginiko marka. Elgoibartarrak 1:10:55 denboran egin zuen, maratoi erdia hanbike modalitatean. Bera izan lehena.≠Giro ederrean egin zen Gipuzkoako atletismo probarik jendetsu eta bikainena.

## ELGOIBARTAR ETA MENDAROARREN SAILKAPENA

| Abizenak, Izena | Postua | Denbora |
|---|---|---|
| 1. Jose Antonio Ruiz del Rey | 57 | 01:09:30 |
| 2. Xabier Bergaretxe Olabide | 166 | 01:13:21 |
| 3. Imanol Santos Urain | 253 | 01:14:59 |
| 4. Ibon Gabilondo Altuna | 265 | 01:15:10 |
| 5. Iñigo Lariz Azkue | 314 | 01:15:58 |
| 6. Imanol Rodriguez Iriondo | 352 | 01:16:35 |
| 7. Iñigo Ortueste | 415 | 01:17:20 |
| 8. Alexander Agirretxe | 446 | 01:17:39 |
| 9. Igor Dieguez Alberdi | 640 | 01:19:31 |
| 10. Alberto Garate Intxausti | 715 | 01:19:57 |
| 11. Iñigo Iturbe Ortiz de Zarate | 852 | 01:20:51 |
| 12. Danel Fdz. de Jauregui Murumendiaraz | 907 | 01:21:11 |
| 13. Julen Irizar Mantzizidor | 1.109 | 01:22:27 |
| 14. Mikel Agulló Ruano | 1.173 | 01:22:48 |
| 15. Jose Manuel Fernandez Carbayo | 1.265 | 01:23:17 |
| 16. David Soto Fernandez | 1.288 | 01:23:26 |
| 17. Aitor Osoro Odriozola | 1.571 | 01:24:45 |
| 18. Hector Garrido Diez | 1.620 | 01:24:56 |
| 19. Anton Mendizabal Etxaniz | 2.033 | 01:26:43 |
| 20. Zigor Azkoaga Urkidi | 2.065 | 01:26:49 |
| 21. Jon Ulibarri Mantzizidor | 2.153 | 01:27:10 |
| 22. Luis Anakabe Plaza | 2.228 | 01:27:29 |
| 23. Imanol Calleja Etxaniz | 2.499 | 01:28:24 |
| 24. Maider Lehr Arambarri | 2.504 | 01:28:25 |
| 25. Angel Eguren Belaustegi | 2.546 | 01:28:33 |
| 26. Urtzi Alkorta Astigarraga | 2.687 | 01:29:00 |
| 27. Josu Mendicute Azkue | 2.719 | 01:29:06 |
| 28. Ibon Villanueva Altuna | 2.868 | 01:29:32 |
| 29. Jon Basurto Larrañaga | 3.240 | 01:30:28 |
| 30. Ibai Etxabe Mugica | 3.247 | 01:30:29 |
| 31. Mariano Lopez Rodriguez | 3.389 | 01:30:55 |
| 32. Asier Lasuen Herrero | 3.548 | 01:31:21 |
| 33. Jon Peli Uriguen Ansola | 3.554 | 01:31:29 |
| 34. Javier Fdz. de la Lama | 3.571 | 01:31:25 |
| 35. Modesto Cid Cid | 3.668 | 01:31:43 |
| 36. Eneko Ramo Ortiz de Etxebarria | 3.671 | 01:31:44 |
| 37. Asier Makazaga Bengoetxea | 3.673 | 01:31:44 |
| 38. Juan Jose Gurrutxaga San Martin | 3.728 | 01:31:55 |
| 39. Oier Irazabal Garciandia | 3.915 | 01:32:29 |
| 40. Josu Orbea Ostolaza | 4.364 | 01:33:41 |
| 41. Javier Agirrebeña Larrañaga | 4.369 | 01:33:42 |
| 42. Eugenio Caro Estevez | 4.453 | 01:33:54 |
| 43. Pilar Arriola Diez | 4.667 | 01:34:39 |
| 44. Asier Arrieta Vallejo | 4.672 | 01:34:39 |
| 45. Mikel Arriola Etxeberria | 5.094 | 01:35:53 |
| 46. Gorka Garaizabal Aguirrecomezcorta | 5.277 | 01:36:28 |
| 47. Imanol Iparragirre Arretxea | 5.477 | 01:37:00 |
| 48. Aitor Cornejo Larrañaga | 5.524 | 01:37:08 |
| 49. Mikel Gabilondo Aizpitarte | 5.757 | 01:37:48 |
| 50. Javier Abad Garcia | 5.778 | 01:37:51 |
| 51. Lourdes San Martin Andonegi | 5.941 | 01:38:23 |
| 52. Berex Ortiz Ardanza | 6.027 | 01:38:39 |
| 53. Fernando Calvo Minchinela | 6.104 | 01:38:53 |
| 54. Carlos Rodriguez Ramos | 6.122 | 01:38:55 |
| 55. Kepa Mendikute Agirre | 6.165 | 01:39:04 |
| 56. Gorka Landaburu Azkarreta | 6.166 | 01:39:05 |
| 57. Eneko Agirre Agirregomezkorta | 6.255 | 01:39:19 |
| 58. J. Ignacio Ortiz de Urbina Segurola | 6.269 | 01:39:21 |
| 59. Raul Carcedo Flores | 6.437 | 01:39:46 |
| 60. Carlos Ayesta Arruza | 6.498 | 01:39:56 |
| 61. Tomas Iriondo Astigarraga | 6.545 | 01:40:03 |
| 62. Jose Maria Elustondo Unamuno | 6.553 | 01:40:05 |
| 63. Tomas Angel Azpeleta Iturricastillo | 6.713 | 01:40:31 |
| 64. Gaizka Iglesias Husillos | 6.742 | 01:40:36 |
| 65. Jesus Mar Lersundi Larrañaga | 6.821 | 01:40:49 |
| 66. Joseba Sagasta Anton | 6.956 | 01:41:14 |
| 67. Jon Urbieta Sanz | 6.961 | 01:41:15 |
| 68. Luis Canseco Cobreros | 7.243 | 01:42:06 |
| 69. Joseba Manzano Igual | 7.398 | 01:42.34 |
| 70. Iker Araujo Narbaiza | 7.493 | 01:42:51 |
| 71. Gotzon Gurruchaga Bengoechea | 7.851 | 01:43:59 |
| 72. Amaia Jauregi Barrutia | 8.087 | 01:44:51 |
| 73. Aitzol Garmendia Conde | 8.088 | 01:44:51 |
| 74. Iker Jausoro Murgiondo | 8.533 | 01:46:22 |
| 75. Rosendo de Campizu Gallego | 8.681 | 01:46:53 |
| 76. Maria Jesus Izagirre Izagirre | 8.710 | 01:47:00 |
| 77. Josu Zubiaurre Jauregi | 8.848 | 01:47:28 |
| 78. Amaia Lariz Irazabal | 8.893 | 01:47:39 |
| 79. Mikel Arzamendi Mujika | 8.946 | 01:47:51 |
| 80. J. Antonio Gurrutxaga Iriondo | 8.979 | 01:47:59 |
| 81. Eduardo Armendia Azaldegi | 9.131 | 01:48:40 |
| 82. Jorge Elkoro-iribe Intxausti | 9.132 | 01:48:40 |
| 83. Joseba Sanchez Garcia | 9.292 | 01:49:16 |
| 84. J. Ignacio Jauregi Mugica | 9.352 | 01:49:29 |
| 85. Ekaitz Alkorta Kareaga | 9.478 | 01:49:58 |
| 86. Jabier Puyadena Alderdi | 9.495 | 01:50:02 |
| 87. Unai Egaña Zunzunegi | 9.518 | 01:50:10 |
| 88. Mª Pilar Arrate David Casado | 9.577 | 01:50:27 |
| 89. Ana Casquero Gonzalez | 10.566 | 01:54:54 |
| 90. Manuel Arrillaga Ibarluzea | 10.608 | 01:55:04 |
| 91. Eñaut Oierzabal Arano | 10.936 | 01:56:42 |
| 92. Ainhoa Aduriz Garzia | 11.152 | 01:58:07 |
| 93. Andoitz Agirregomezkorta | 11.153 | 01:58:08 |
| 94. Maite Uribe Odria | 11.340 | 01:59:08 |
| 95. Jon Etxeberria Zulaika | 11.408 | 01:59:33 |
| 96. Javier Hernando Albert | 11.459 | 01:59:55 |
| 97. Martin Galarza Berasueta | 11.648 | 02:01:19 |
| 98. Eduardo Ayesta Arruza | 11.944 | 02:04:18 |
| 99. Abel Arriaga Altzibar | 12.230 | 02:07:59 |

MENDARO

| | | |
|---|---|---|
| 1. Igor Ezenarro Arriola | 1.100 | 01:22:23 |
| 2. Haritz Goikoetxea Aranberri | 1.578 | 01:24:47 |
| 3. Jorge Cebrian Cabrero | 2.296 | 01:27:40 |
| 4. Iñaki Arregi Uria | 3.305 | 01:30:41 |
| 5. Jurdan Ezenarro Arriola | 7.550 | 01:43:00 |
| 6. Roberto Mangana Miguel | 8.669 | 01:46:50 |
| 7. Mikel Rua Camino | 10.873 | 01:56:24 |
| 8. Dabi Sagarna Arrizabalaga | 12.476 | 02:12:55 |

KARAKATEKO IGOERA

# Partehartze handia espero dute Morkaiko mendizale elkarteko antolatzaileek

Inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan zituen pasa den urteko hitzorduak eta aurten ere marka guztiak haustekotan da XIV. Karakateko igoera. 38 lagunek parte hartu zuten iaz eta azkarrena Aritz Kortabarria izan zen eta 29 minutu justu behar izan zituen Plaza Handitik Karakateko tontorreraino (764 metro) iristeko. Probako errekor berria ezarri zuen, aurrekoa 1997an Jose Mari Fernandez "Suso" elgoibartarraren eskuetan baitzegoen.



*Iazko irabazlea, Aritz Kortaberria arrasatearra*

### Emakume bakarra

Pilar Arriola izan zen pasa den urtean parte hartu zuen emakume bakarra. 34. postuan heldu zen eta 40:46 minutu behar izan zituen. Ea biharko proban gehiago animatzen diren. Datorren asteko alean probako parte-hartzaile guztien zerrenda eta denbora kaleratuko dute aldizkari honek eta *elgoiBARREN.net* helbidean ere bilduko ditugu datuok. Eguraldiak ere mugatuko du proba jarraitzera hurbilduko den jendetza kopurua. Iaz inoiz baino gehiago bildu zen.

## Josemi Gabilondo, Mendiko Auto Historikoen Euskadiko txapelduna



Josemi Gabilondok eutsi egin dio Euskadiko Mendiko Auto Historikoen Txapelketari Jaizkibelen izandako Udazkeneko Igoeran. Eibar taldeko pilotua jaun eta jabe izan zen, eta berak bakarrik egin zuen ibilibide osoa hiru minutu azpitik. Bigarren sailkatua baino 15 segundu lehenago iritsi zen. Eibarko taldea zorioneko da primerako denboraldia egiten ari delako eta, Estatuko txapelketaren proba puntuagarria den Arrateko Igoeraren atarian, egoera onean dago. Gainera David Ardionsek bi motatan irabazi du eta N mailan sailkatutako talde bakarra da.

## Tenis txapelketa, azaroaren 27tik aurrera

Lehiaketan izena emateko azken data azaroan 23an bukatuko da eta adi ibili, parte hartzaile kopurua mugatua baita. Gehienez 32 jokalari lehiatu ahal izango dira. Tenis txapelketan izena emateko deitu honako telefono zenbaki hauetara: 637990159 edo 670665791. Edo e-posta bidez *tenis40_15@yahoo.es* helbidera idatzi, izen-abizenak eta kontakturako telefonoa bertan adieraziz. Txapelketaren formatua lau jokalarik osaturiko ligaxka izango da eta talde bakoitzetik lehenengo biak sailkatuko dira. Taldeen zozketa azaroaren 26an egingo da. hamar euro ordaindu beharko ditu izena eman nahi duen orok.≠

## [ EMAITZAK ]

**ARETO FUTBOLA**

Transportes Lacunza 7 - Kenci 8 (Euskal liga)

Elgoibar 6 - Zarauz 10 (Jubenilak)

**ESKUBALOIA**

Euskadiko txapelketa

Aloña Mendi 15 - Tecnifuelle 19 (Senior neskak)

Pneumax 19 - Trapagaran 19 (Jubenil mutilak)

Tecnomeca 17 - Trapagaran 29 (Kad. mutilak)

Gipuzkoako txapelketa

Leizaran 23 - Cometel 14 (Jubenil neskak)

Leizaran 17 - IMH Elgoibar 23 (Kad. neskak)

IHM Elgoibar 43 - Bera Bera 9 (Kad. neskak)

Arrate txiki 4 - Aterpe 32 (Infantil neskak)

Caldereria Lili 11 - Arrate A 16 (Inf. neskak)

Aloña mendi 23 - C. Astigarraga 16 (Inf.neskak)

H. Txarriduna 39 - Bankoa 8 (Inf. mutilak)

**HIRU TXIRLO**

Euskadiko XVIII. Hiru Txirlo txapelketa

2. jartialdiaren sailkapena

1. Angel Ibarluzea. 5 txirlo
2. Sabin Arriaga. 5 txirlo
3. Sebastian Aranzabal. 5 txirlo
4. Unai Loiola. 5 txirlo

5 Ricardo Albizuri. 4 txirlo

6. Jesus Maria Diez. 4 txirlo.

## [ AGENDA ]

**ARETO FUTBOLA** Olaizagan

Zapatua, 17

13.00 Elgoibar – Goierri (Jubenilak)

15.45 Kenci – Alegria (Euskal liga)

**ESKUBALOIA** Euskadiko txapelketa

Domeka 18

11.00 Pneumax – Zarautz (Senior. mut.)

12.30 Tecnomeca – Zarautz (Kad. mut.)

Gipuzkoako txapelketa

Zapatua 17

10.30 Aterpe -Aloña (Inf. nes.)

11.30 C.Astigarraga -C. Lili (Inf. nes.)

09.30 Bankoa -Aloña Medi (Inf. mut.)

# Merkatua

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- Etxe handia salgai Plazan. Berritua. Prezio interesgarria. ☎ 619409273
- Etxea salgai erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteleku txiki bat. ☎ 637124868
- Etxea salgai San Inazio kalean. 56m². Ganbara. Dena kanpoaldera begira. ☎ 687051789
- Pisua salgai Pedro Muguruzan. 65m². Logela, berogailu zentrala. Eguzkitsua, dena kanpoaldera. Merke. ☎ 661974330/943743530
- Etxea salgai Erretxindin. 4 logela, sukalde berritua, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Fatxada eta igogailua berrituak. ☎ 628115677
- Etxea salgai erdialdean. Hiru logela, sukaldea, egongela, komuna eta trasteleku txiki bat. ☎ 637124868

### ALOKAIRUA

- Bi logelako etxea alokatzen da Madalan. Altzariekin. ☎ 605775315
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo inguruetan. ☎ 646844513
- Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. ☎ 608008790
- Bi logelako etxea alokatzen da. ☎ 645048110
- Logela alokatzen da. ☎ 943741881

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- 24m²ko garaje itxia alokatzen da Urasandin. ☎ 943741527 (Luis)
- Marradun garajea salgai Urasandin, Deba kalean. Madalako zubitik gertu. ☎ 658735769
- 200m² eta 400m²ko pabilioiak salgai Sigman. Beheko solairuan. ☎ 619409273
- Garajea alokatzen da Plaza Handitik gertu. ☎ 628764686
- Garaje marraduna alokatzen da erdialdean, Santa Ana 2an. ☎ 943743427

## [ BESTELAKOAK ]

- Kardantxilo mistoak salgai. Kaiolarekin. 60 euro. ☎ 661225149
- Cocker Spanier ingeles txakurkumeak salgai. ☎ 635747785

## [ AUTOAK ]

- Opel Corsa DTI sport autoa salgai. Egoera onean. ☎ 620578702
- Opel Astra DTI 2.0, 16v salgai. 7 urte, 170.000km. Egoera onean. 5.500 euro. ☎ 619582582
- Opel Astra 1.6 autoa salgai. 16v. Merke. ☎ 697363407

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro . Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Arratsaldez edo gauez lan egingo nuke. Umeak zainduz, garbiketak... ☎ 671476869
- Mutila eraikuntzan lan egiteko prest. Zulagailuarekin esperientzia. ☎ 678022125
- Emakumea garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ 678939382
- Emakumea garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ 699813826
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 943742575
- DBH eta LH klase partikularrak ematen dira. ☎ 943531654
- Mutila harategian lan egiteko prest. ☎ 610913340
- Matematika, euskara eta ingeles partikularrak ematen ditu Lehen Hezkuntzan. ☎ 686197248
- Neska euskalduna garbiketak egiteko prest. ☎ 661101160
- Neska garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 647840033/943531103
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketetarako prest. ☎ 687362773
- Emakumea garbiketak egiteko prest. ☎ 943742201 (13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera)
- Euskara errefortzuetarako LH eta DBHko klase partikularrak ematen dira. ☎ 943531654
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketetarako prest. ☎ 687362773
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketetarako prest. ☎ 637966749
- Neska goizez etxeak garbitzeko prest. ☎ 636303262
- LHko klase partikularrak ematen dira. ☎ 686197248
- Emakumea sukalde laguntzaile lanetarako prest. ☎ 654610231
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketetarako prest. Esperientziaduna. ☎ 646235195/636362251
- Emakume arduratsua etxeak garbitzeko prest. ☎ 943743251
- Neska lanerako prest. ☎ 669064252
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketetarako prest. ☎ 671486769
- Gurutze puntuan lanak egiten ditut: jaiotza, jaunartze edo ezkontza koadroak, mantak, toailak... ☎ 676444171
- Neska lanerako prest. ☎ 696204053
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketetarako prest. ☎ 638333816

### ESKAINTZA

- Kamareroa behar da barran eta mahaiak zerbitzen lan egiteko. ☎ 635751642
- Asteburuetan Txuri Beltz tabernan lan egiteko pertsona euskalduna behar da. ☎ 943741513/943740228
- Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. ☎ 636455720
- Bitxiak, barruko erropak eta lurrin produktuak saltzeko jendea behar da. Irabazi onak. Ez da esperientziarik behar. ☎ 607824892
- Eibarko harategi baterako pertsona behar da. ☎ 630557889
- Sukaldaria behar da. ☎ 943743196
- Pintorea edo pintore aprendiza esperientziarekin behar da. ☎ 660522587 (Fernando)
- Azpeitiko Hortz Klinikarako erizain teknikaria behar da. ☎ 943816736
- Kamareroak behar dira asteburuetarako. ☎ 688623668
- Kamareroa behar da. ☎ 943743196

## ABISUAK

- Marañon behean emakumezkoen belarritako bat aurkitu dut. ☎ 943741016
- Sergio Tacchini markako betaurrekoak agertu dira Gloria okindegiaren aurrean. Jabea bertatik pasa dadila.
- Upaitza inguruan poltsikoko telefonoa aurkitu nuen, Nokia 2610. Udaltzaingoan laga dut.

# [ZORIONAK]



Noren urtebetetzea igandean, pitxin? 4 urtetxo azkenean! Zorionak, **Telmo** eta muxu handi bat.



Zorionak, **Unai!** Gurasoen eta lehengusu Ion, Asier, Olatz, Aitor eta arreba Garaziren partez.



Zorionak, **Nahia**, zure 2. urtebetetzean. Mila muxu eta mila maite, poxpolintxo.



Zorionak, **Danel**, zure 2. urtebetetzean. Etxekoen, bereziki, Aneren partez.



Azkenean badator hilaren 20a! Prest 6 belarri tirakada jasotzeko? Zorionak, **Amaia** familiako guztien partez.



Zorionak, **Haritz Azpiazu!** 6 urte! Gurasoen, Nagore, Julen eta batez ere, amama Paularen partez.



Zorionak, **Patri!** Pixkat berandu, baina seguru. Onena zara! Horren polita izaten jarraitu. Muxu bat.



Zorionak, **Ane**, azaroaren 15ean 6 urte egin zenituelako. Gurasoen eta Noraren partez.



Zorionak, **Ane!** Oso ondo pasa dezazula! Lehengusuen eta ahizpa Noraren partez.



Zorionak, **osaba Satur!** Urte bat gehiago! Jarraitu beti bezala. Tamara eta Aidaren partez.



Zorionak, **Zorione**, zure 6. urtebetetzean. Baita zuri ere, osaba Bittor! Familiako guztien partez.



Zorionak, **Julia**, hilaren 19an 10 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Jairoren partez.



# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]



18 igandea BOLINTXO

## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ

16 Yudego
17 Etxeberria *(Errosario)*
*(* Goizez Zabaleta)*
18 Zabaleta
19 Etxeberria *(Errosario)*
20 Ibañez
21 Bidasolo
22 Etxeberria *(Santa Ana)*
23 Fernandez

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ TELEFONOAK ]

**OSASUNA**

| | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| DYA (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

**UDALA**

| | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak. | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

**BESTELAKOAK**

| | |
|---|---|
| BARREN astekaria | 943 74 41 12 |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |

**ADINEKOEN ETXEAK**

| | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

**IKASTETXEAK**

| | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua • Arreiturre | 943 74 80 19 |
| •Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

aek
euskaltegiak 25 urte
"Lanerako EGA behar nuenez, AEKra jo nuen. Baita gainditu ere! Egunero joatea gogorra izan arren, oso giro atsegina izan genuen."
Elgoibarko aek euskaltegia
Plaza Txikia, 3
Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@aek.org

MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

## [ 16 BARIXAKUA ]

**19:00 BARRIO CUBA**
Kultur Etxeko hitzaldi gelan. “Cuba: hegoa bere irudiaren protagonista” zinema sozial emanaldiaren barnean.

**21:00 BERTSO AFARIA**
Baltasar elkartean Egaña eta Agirre. Gai-jartzailea, Uxue Alberdi.

**22:30 SOTOKO HOTSAK**
Sr. Archi Kultur Etxeko sotoan.

## [ 17 ZAPATUA ]

**11.00 XIV. KARAKETARAKO IGOERA** Irteera plaza handitik izango da Karakaterako tontorreraino (764 metro) iristeko.

## [ 18 DOMEKA ]

**10:00 MENDI IRTEERA SAIBIRA**
Ikastolako gurasoak mendi irteera antolatu dute Saibira (932 metro). Irteera ikastolatik izango da Urkiola aldera.

**20:30 SOTOKO HOTSAK**
Bizarra bikotearen musika eta Pato Ramsayren sukaldaritza.

## [ 22 EGUENA ]

**08.30 SANTA ZEZILIA EGUNA**
Ikastolako ikasleek kalejirak: goizez 8:30ean, Foruen plazatik Ikastolara; arratsaldean, 16:15ean, Ikastolatik Foruen plazara.

## [ 23 BARIXAKUA ]

**17:00 JOSTAILU ERAKUSKETA**
Kulltur Etxeko sotoan.

**18:00 SANTA ZEZILIA KONTZERTUA**
18:00etan Musika hizkuntzaren hasierako ikasleak. 18:30ean, trikitilarien kalejira. 19:30ean, diplomen banaketa. Musika eskolako auditorioan.

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN



**«Mataharis»**
16, barixakua: 22:15
17, zapatua: 19:00-22:15
18, domeka: 19:00-22_15
19, astelehena: 21:30
**«Tortugas ninjas jóvenes mutantes»**
18, domeka: 16:30
**«4 minutos» (Z.K.)**
22, eguena: 21:30

**EIBAR,** UNZAGA
**«El asesinato de Jesse James por el cobarde Robert Ford»**
17, zapatua: 17:00-19:45-22:30
18, domeka: 17:00-19:45-22:30
19, astelehena: 19:30-22.15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## SINOPSIAK

### «Mataharis»




Zuzendaria: Iciar Bollain
Antzezleak: Najwa Nimri, T. Ulloa eta M. Vazquez.
Hiru emakumezko detektibek atrebentzia eta segurtasun izugarria erakusten dute lanean dauden bitartean baina etxera joaten direnean, zeharo aldatzen da euren aurpegikera. Zine sozialaren arrastoak ditu filmak eta lan merkatuaren gordintasuna erakusten du.

### «4 minutos» (Z.K.)




Zuzendaria: Chris Kraus.
Antzezleak: Monica Bleibtreu eta H. Herzsprung, Emakumezko piano-jole batek eskolak emango dizkio espetxe barruan dagoen gazte errebelde bati. Gazteak ez dio amen amen egiten baina pixkana pixkanaka elkar ulertu beharko dute, eta istorioak ezusteko amaiera izango du. Alemaniako zine berri eta freskoaren adibide ederra.

# Atzera begira



**1937**. urte inguruko San Antolin auzoko ermita aurrean ateratako erretratu hau **Anjel Arozenak** laga digu. Don Inazio Aldasoro lurjabearenak ziren lursail horiek eta ermita. Auzokideek erosi egin zuten eta bikote bat baino gehiago ezkondu zen bertan; Anjel Arozena, esate baterako. Gaur egun ermita hori ez dago, izan ere, autopista egiteko bota egin zuten-eta. Erretratu honetan agertzen diren guztiak hilda daudela esan digute, Anjel bera eta bi umeak izan ezik. Gogora ditzagun zein diren San Antolineko gizon hauek.

Atzean, ezkerretik eskumara: **Anjelino Barrenetxea (Apraiz), Jose (Lizundia Gain), Batista Galarraga (Lizundia Azpi), Patxi (Lizundia Gainekoa), Santi Agirregomezkorta (Muniola), Nicolas San Martin (Aldai), Tomas Etxabe (Karkizano), Pedro Etxabe (Palazio).**

Bigarren ilaran: **Aguazila, Jose Mari Mujika (Petoko jabea), Manuel Juaristi (Apraiz Gain), Sebastian Arrieta (Irabaneta), Markos Arregi (Oleta), Bittor Usatorre (San Antolin), Anjel Arozena (okina).**

Behean, eserita: **Jose Mari Etxabe (Zabale), Arrixaga, Migel (Txabola), Juan Jose Bergaretxe (Zabale), Tomas Ansola (Mausitxa), Nikolas Arrieta (Irabaneta), Esteban Etxaniz, Teodoro Barrenetxea (Arrixaga), Elias Elorza (Altzolako erremintaria).**




## ESKERTZA

2007ko azaroaren 9an hil zen
***Asier Landa Perez**en* sendiak
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





*Asier Landa*

***Zure haurtzaroko koadrilak
ez zaitu sekula ahaztuko***



**Zure lagunak**

komunikazio dgf grafikoa











# ZURE IRUDIAREN DISEINUA SORTZEN DUGU !

Dgraff-en, enpresa, zerbitzu edo produktuen sormenaz eta kudeaketaz ardurazen gara behar espezifikoak kontuan izanik.

Informazioa eska ezazu 943 74 12 59 telefonoan, edozein kontsultarako prest egongo gara eta berehala aurkeztuko dizuegu Dgraff-ek bere bezeroei eskaintzen dizkien produktu eta zerbitzuen adibide ezberdinak; irudi korporatiboen sorrerak, katalogoak, prentsa iragarkiak, website-ak etab…




Logotipoak irudi korporatiboa katalogoak foiletoak kartelak iragarkiak Logotipoak irudi korporatiboa katalogoak foiletoak kartelak iragarkiak Logotipoak irudi korporatiboa katalogoak foiletoak kartelak iragarkiak

# gorputz-teknologia berria



Judith
EDERGINTZA

Errosario Kalea,19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667742118